

FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure enpresa aurrera eramateko, lehenik eta behin, beharrezkoa izango da gure pausuak planifikatzea (hori da orain egiten ari garena). Hasteko, garraiobide enprekin adostasun batera iritsi behar gara, hauek beren informazioa gurekin elkarbanatzeko.

Ondoren, dirulaguntza bat lortu beharko dugu, bankutik edo dena delakotik (aurreko dokumentuan zehaztu dugu), eta horrekin aplikazioa sortzeko ordaindu behar diogu norbaiti. Bestalde, sentsoreak eta erabiliko ditugun beste hainbat makina erostea edota sistema horiek kontratatzea ezinbestekoa da, eta horiek funtzionatuko ez balute gure ardura da horiek funtzionaraztea. Beraz, hauen instalazioa egin behar dugu.

Behin hori dena antolatuta, marketing-a egitea da beharrezkoa, izan ere, gure proiektua ahalik eta jende gehiagok ezagutu behar du. Horretarako, busetan eta tren edota topo geltokietan kartelak ipiniko ditugu. Azkenik, diru sarrerak lortzen hasteko, gure aplikazioa publiko egingo dugu (kontuan eduki behar da, behin aplikazioa irekita, jarraipen bat egiten jarraitu beharko dugula, honen erabilera ahalike ta honena izan dadin).